

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2026ko ekainaren 2an arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2026-04-28KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2026-04-28ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Mikel Otamendi

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko apirilaren 29an, 22/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Miguel Olaechea Estangari ur-hornidurako hartunea egiteko baimena ematea, Kale Nagusiko 2. Zenbakiko 2. Pisuan duen etxebizitzarako.

2.- Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko maiatzaren 11n, 23/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2026ko apirilaren 28an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzeko agindua ematea.

3. Juan Cruz Zabala

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko maiatzaren 15ean, 24/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Cruz Zabala Etxebeste jaunari Betelun txekor buru batentzako etxeko abeltzaintza-instalazioa jartzeko Beteluko 2. Poligonoko 15. lursailean.

3.- 2. POLIGONOKO 55. LURSAILAREN ERRENTAMENDU KONTRATUA

Juan Ignacio Elizalde Artola eta Maria Rosario Elizalde Artola jabe diren 2. Poligonoko 55. lursaileko higiezina errentan hartzeko asmoa du Beteluko Udalak, aparkaleku publikoa jartzeko.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez ondokoa

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Juan Ignacio Elizalde Artola jauna eta Maria Rosario Elizalde Artola jabe diren 2-55 lursaileko higiezinen errentamendua onartzea, urteko 300 euroko prezioan. Kontratua ekainaren 15etik irailaren 15era bitartekoa izanen da, eta kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da ondorioak izaten.

BIGARRENA.- Juan Ignacio Elizalde Artola eta Maria Rosario Elizalde Artolari, kontratuaren esleipendun diren aldetik, erabaki hau jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren guztizko gastua konprometitzea, 1 4590 22799 "Presaren kudeaketa" partidaren kontura.

4. BETELUKO KALE NAGUSIKO 7.EKO 2.IKO UDAL PISUAREN ERRENTARAKO ESPEDIENTEA

Puntu hau mahai gainean uztea erabaki da aho batez.

5. NA-10.019 EHIZA BARRUTIA

Gaintzako, Intzako eta Uztegiko Kontzejuek eta Beteluko Udalak beste gauza batzuen artean haien terminoetako parte diren lurretan tokiko ehiza barrutia osatzeko eta haien ordezkari modura Beteluko Udala barrutiko titular izendatzeko akordioa hartu zuten.

2026ko otsailaren 24an egindako udalbatzan ehiza barrutia eratzeako proiektuaren iragarkia jendaurrean jartzea eta horren ondotik Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administraziooko Departamentuari Betelu, Gaintza, Intza eta Uztegiko lurak barne hartuko dituen tokiko ehiza barrutia osatzeko eskaera luzatzea erabaki zen.

2026ko martxoaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 49. alean tokiko ehiza barrutia osatzeko proiektua iragarri zen. Hamabost egun baliodunean jendaurrean egon ondoren 206ko apirilaren 21ean Beteluko Udalak eskaera luzatu zion Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako Departamentuari NA-10.019 tokiko ehiza barrutia deklaratu zezan.

Lurralde Antolamenduko eta Ingurugiroko Zuzendari Nagusiaren 2026ko maiatzaren 14ko 379/2026 ebazpen bidez tokiko ehiza barrutia eratzeko baimendu zuten.

Hau dena ikusita, Beteluko Udalbatzak honako akordioa hartu du:

1. G31339187 N.I.F zenbakia duen "Asociación Local de Cazadores Mallope" ehiztarien tokiko elkarteari esleitzea behin betikoz Uztegi, Intza, Gaintza eta Beteluko ehiza barrutiko aprobetxamendua.
2. Baso-zerbitzua eta ehiza-kudeaketa Zerbitzuak egindako zuzenketak barne hartzen dituen ehiza barrutiaren baldintza pleguak onartzea.

6. JASOTAKO ESKAERAK

1. Beteluko jai batzordea

Leire Lopetegik Rekaldek, Beteluko Jai Batzordearen izenean, 2026ko Beteluko San Pedro festak direla eta, ondorengo eskaera hauek egin ditu:

- Ekitaldi ezberdinak antolatzeko plaza erabiltzeko baimena.
- Ekitaldi ezberdinak antolatzeko frontoia, eskola kanpoko futbol zelaia eta parke ingurua erabiltzeko baimena.
- Ekitaldi ezberdinetan erabiltzeko udalaren bozgoragailu eramangarria eta proiektorea erabiltzeko baimena.
- Festak baino 3-4 aste lehenago txosna plazan jartzeko baimena.
- Herriko argiteriaren argindarra erabiltzeko baimena
- Udalak eman ohi duen dirulaguntza

Hau ikusirik honakoa onartu du udalbatzak aho batez:

Lehenengoa.- Eskatutako baimen guztiak ematea.

Bigarrena.- Festak antolatzeko Beteluko Lagunarteari 9.000 euroko ekarpena egitea 2026ko aurrekontuko 1 3380 4820000 "Festa batzordeari ekarpena" partidaren kargura.

Hirugarrena.- Leku eta tresna horietan izan daitekeen edozein kalte, eskatzailearen erantzunkizuna izango da.

7. 2025EKO KONTUEN ESPEDIENTEAREN ONARPENA

Udal Kontuen Batzordeak 2025eko ekitaldiari dagokion Beteluko Udalaren Kontu Orokorrei buruz 2026ko martxoaren 31n egindako aldeko txostena ikusirik

Kontu orokorra Udaletxeako iragarki oholean iragarri ondotik 15 egun balioduneko epean, 2026ko apirilaren 17tik 2026ko maiatzaren 11ra arte, jendaurrean egon dela kontuan harturik, interesatuek inolako alegazio edo kexarik aurkeztu gabe.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242.4 eta 242.5 artikuluekin bat, zera ERABAKI DA:

1. 2025eko ekitaldiari dagokion Beteluko Udaleko Kontu Orokorra onartzea.
2. Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuari espedientearen kopia bidali.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udal bilkuran diren guztien adostasunarekin onartu da.

8. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Codisna	F. 26.127	193,60 €
Animsa	F. SCA 256	1.424,05 €
Brico depot	F. udaleko argiteria (Iñaki)	186 €
Greenice	F. udaleko argiteria (Iñaki)	144,30 €
Wikai	F. 1/9041	112,10 €
IDM Medical	F. 752	133,95 €
Repsol	F. gasoila	25 €
Ion Ezcurdia Azcona	F. 126	1.620 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A7/2026	90 €
Iberdrola	F. Urberoa	6,93 €
Correos	F gutun zertifikatua	6,99 €
Gassó	F. 26F05055	84,91 €
Monkaval	F. 2016-16	2.299 €
Venus Campos Walsh	F. DFA_55	2.833,41 €
Leroy Merlin	F. 510960 eskolarako ulea	69,97 €
Iberdrola	F. udaletxeko pisua	9,66 €
Goiener	F. eskolako argia apirila	528,84 €
Goiener	F. udaletxekoa argia apirila	556,94 €
CBSCLIPS SL	F. ACT 007	2.178 €
Julen Armendariz Larraza	F. 2026/26/51	1.621,80 €
Diegaby Hostal SL	F. 79	438,80 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	545,55 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1178	164,30 €
Chocarro y Urmeneta	F. Emit 2622	2,613,60 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	260,57 €

Ezsa	F. E2613440	399,30 €
Benimeli	F. plazako sarea	182,35 €
Codisna	F. 26.163	596,53 €
Ofico	F. 262038	156,43 €
Rotulan	F. 2026/188	880,02 €
Animsa	F. SEA 32	315,32 €
Repsol	F. 0015917/Z/26/000011	16,02 €
AMB Legez Mikrosoz. Koop.	F. 20	18.150,00 €
Comercial Fervis	F. 1647	185,03 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. udaleko erosketak	52,65 €
Vodafone	F. martxo	209,90 €
Vodafone	F. apirila	209,90 €
Vodafone	F. maiatza	209,90 €
Correos	F. uren paperak buzoneatzea	24,75 €
Wikai	F. 1/12046	112,10 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Vitaly Health Services SL	F. IFC2604-11713	947,38 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A3-2026	8,10 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A6-2026	53,20 €
Comercial Fervis	F. 1.310	27,72 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. apirileko janaria	52,55 €
Maite Garcia Satrustegui	F. a1/56	926,90 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo maiatza garbiketa produk	12,95 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo maiatza janariak	71,44 €
Kide	F. S0000734	442,26 €
Kide	F.S0000960	214,17 €
	DENETARA:	39.991,54 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak hamar gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.